

**BERTSOEN TXOKOA**

Oraingoan bertso-jartzaile bakarra agertu da txoko honetan. Hiru gairen inguruan dabil: Lehen Jaunartzeko oroigarria; bi zahartxoren urtebetetzea; familia bateko alaba gaztetxoa hil zeneko 13. urteurrena.

**LEHENENGO JAUNARTZERAKO**

Gure ametsen kutxan  
lehendik ezarria,  
Zure besarkadaren  
une pozgarria;  
urrez idatzi behar  
zen oroigarria;  
paperean baino lehen  
ariman jarria!

**AMONATXO BATI BERE URTEBETETZEAN**

(2)

Etorri zaizu beste urte bat  
pozezko mezuz beterik,  
urtero dator ta ezin itxi  
holakoari aterik;  
deiak hemendik, agurrak handik...  
ez dizue emango bakerik;  
nik ere bertsoz agurtzen zaitut  
ta ezin esan besterik:  
mila zorion opa dizkizut  
gaur, Fernanda, bihotzetik.

Tristuraz doa udaberria  
maiatza ere negarrez,  
hodeietako malko guztiak  
hemen isuri beharrez;  
hala ere gu zurekin gaude  
pozik eta irribarrez;  
zure zerua argitu dadin  
eguzkiz eta izarrez,  
Fernanda, bete nahi zaitugu gaur  
omen edo gorazarrez.

**ETXEKO ZAHARRENARI BIHOTZEZ**

(A. Jazinto)

Gaur egun berezia:  
*irailak hamaika,*  
Dorre Bikien drama  
zen aldarrika;  
guk ez dugu dramarik,  
bai egun polita:  
etxeke zaharrenaren  
urtemuga baita;  
pentsatzen jarrita,  
urteak jarraika  
badoaz korrika,  
urtero errepika;  
asko hartu dituzu  
Jainkoak nahita (bis).

Hainbat gauza gorderik  
 hor oroimenean,  
 haiek jartzen zabilta  
 zu paperean;  
 ordenagailutxo bat  
 hartu nahi mendean,  
 uste bezain erraza  
 ez da gehienez:  
 lana ezustean  
 galtzen bat-batean,  
 gehiago ezinean  
 etsi beharrean...  
 Lagun eta etsai da  
 aldi berean (bis).

Kolonbia sarturik  
 bihotz barruraino,  
 oso gazterik heldu  
 zinen haraino;  
 han ere aurkiturik  
 eguzki ta laino;  
 alde onak lilura  
 sortu, horraitino.  
 Sasoiz oraindino  
 heldurik honaino,  
 aurrera, animo!  
 mendi eta muino...  
 non toki hoberik zuk  
 gurekin baino? (bis).

**JOAN ZITZAIGUNA GOGORATUZ**  
(13. urteurrena)

Egunak eta gauak badoaz  
argi-ilunen artean,  
hainbeste gauza kontatuz guri  
gertakarien katean;  
nahigabe latza agertzen zaigu  
zu joan zinen urtean,  
nabaritzen da nahigabe hura  
gu bion begitartean,  
baina esperantzaz segi nahi dugu  
bizi garen bitartean.

Gertakarien harian datoz  
hainbeste poz eta penak,  
gure arima bere erritmoan  
mugiarazten dutenak;  
familietan izaten dira  
agur triste eta etenak,  
sendatzen zailak izan ohi diren  
tristurazko oroipenak;  
horiek senda ditzake soilik  
fedezko itxaropenak.

*Luis Baraiazarra*